

LIBURU AURRERAPENA

LAURA MINTEGI



Heroizidaderik handiena eta miserablekeria lardazgarriena egin dezakegu maiteminararen aitzakiaz. Ederki daki hori Anek, Mikel ezagutu zuenetik buelta eman baitio bizitzari. Familia utzi, alde egin eta urte batzuen ostean berriz itzuli da etxera. Itzuleran kokatu gaitu Laura Mintegik, Txalaparta argitaletxearen eskutik plazaratu duen *Sisifo maite minez* nobela berrian.

Sisifo maite minez

Maitasuna zer den jakin nahi duzu? Nik esango dizut zer den: estraineko presioa bularrean, eztarria ihartuta eta bihotza taupaka sentitzea; begirada galdua puntu batean tinkotzea; norberaren bizitza hiru lerroko poema batek islatzen duela ikustea; bizirik zaude la jakin eta bizi nahi ez izatea; barne-mina, hainbestearinoko mina izan zitekeenik ere sumatuko ez zenuela. Maitasuna malenkonia da, tristezia eta algara batera, pasioa, ziurtasun-eza, sugarra, karentzia eta sobe-rakina; inoiz baino niago izan eta aldi be-rean norberaren buruarekiko arrotz senti-tzea. Maitasunak aurreko bat eta ondoren-go bat ezarri zuen nire bizitzan.

Ane isildu egin da. Denboran atzera ari da, azago, neurtzen ari balitz bezala aurreko eta ondorengoaren arteko marra nola sortu zitzaion, nekez, hitzen harritik nekeza baita iragana orainera ekar-tzea.

Maitasuna da —hasi da berriro hizke-tan— maileguz bizitzea, norberarena ez den bizitza bizi izatea, jakin gabe zer egin bizitza horrekin. Nola esan? Nola azaldu-ko nuke maitatzea zer den? Bizi izan due-nak badaki, baina ezagutu ez duenari nola azaldu? Maitasuna zer ez den esan ahal di-zut: lasaitasuna, oreka, logika, konforma-tzea. Maiteminduak nahi du dena eta ato-an, baita ezinezkoa ere. Araua krudela da, eta konbentzioa tirania iruditzen zaio; he-siz inguraturik dagoela sentitzen du maiteminduak, arauaren absurduak inguratuta. Maitasunak hil egin ninduen, baina berari esker bizi izan nintzen behin, hil aurretik.

Begirada galdurik, giharrik mugitzeke, hankak gurutzaturik, koadro honetan mugimendua bakarrik dute zigarrokinaren keak eta jaustear dagoen errautsak. Esteban Mugarrak idazteari utzi dio. Be-launen gainean duen koaderno itxi eta azalean ANE idatzirik duela ikus daiteke. Buru-gaixoek ez ei dute deiturarik. Koaderno zabaltu eta lehen orrian, orde-a, Ane Atela Lasa irakur daiteke, eta artxiborako erreferentzia-zenbaki bat.

Isilik segitu du Anek. Kasetaren zinta amaitzear dago. Hizketan hasi aurretik, Esteban Mugarrak zinta atera, buelta eman, kasetean sartu eta botoi gorria sa-katu du.

—Kontaidazu bizirik zeundeneko hura.

—Aspaldiko kontua da. Beste bizitza batean.

—Eta beste lurralde batean.

—Bai, Ertamerikan.

—Baina dena hemen hasi zen, Bilbon, ezta?

Aneri buruz ez daki gauza handirik. Gehiena, senarrak kontatu zion kontsul-tara etorri eta kasua hartzeko erregutu

zitonean. Beste zerbait aurreko saioe-tatik jasotakoari esker daki. Ezer gutxi. Osatu gabeko puzzlea da oraindik.

Oraingoz dakienaren arabera, Anek ez zuen jakin zer zen maitemindurik egotea Mikel ezagutu arte, eta ordurako bazuen senar bat, bi alaba, etxe eder bat hipotekatua eta bizitza antolatuta. Bai-na orain sei urte, dena des-lekutu zitzaion, sei urteko alabak buruan kolpea hartu eta larrialdietara eraman zue-netik aurrera. Mikelen txanda zen ospitalean eta azareak batu zituen biak ustekabeen.

Orain arte kontatu dionagatik, Mikel ezagutu arteino Anek uste zuen maitasuna lineala eta norabide bakarrekoa zela, gehiagotik gutxiagora, gaztarotik helduarora. Gerora konturatu zen maitasunaren irudia ez dela lerro bakarrekoa, ez dela ziklo lineal bat, jaio, hazi, ahuldu eta hiltzen dena. Maitasuna txirikordatua da, zuri-beltza, aurreikustezi-na, korapiloz betea.

Alabak sudurra apurtu izan ez balu eta aurpegian ebaketa egin, edo Mikelek beste txanda bat izan balu, edo Gurutzetako ospitalera baino Basurtukora edo Galdakaokora eraman izan balute, Anek ez zukeen agian Mikel inoiz ezagutuko, eta Aneren bizitza ez zatekeen aldatuko. Ala bai. Nola jakin?

Azarea noraino da ekidinezina? Eta noraino da azare?

Kontua da, Ane azarez joan zela egun eta ordu hartan ospitale hartara, eta azareak batu zituen bien bizitzak bide berean. Hala ere, harreman hura bertan behera geratuko zatekeen Mikelek aurrera jo izan ez balu, txikiaren orbaina berriz ikusteko interesik adierazi ez balu. Baina, nonbait, zerbait piztu zen bere barnean, eta berehala erabaki zuen Aneri buruz gehiago jakin nahi zuela. Zirujau plastikoa da Mikel. Ane ezagutu zuen garai hartan berrogeita bost urte zituen eta bakarrik bizi zen, baina hori guztia Anek ez zekien, eta ez zuen jakin geroa-go arte. Prozesu bat izan zen.

Mikelek bisita-ordua eman zion aste-bete geroagorako, zauriaren puntuak eta sudur-tabikea nola zituen begiztatu nahi baitzuen. Ondo geratuko zitzaio-larrialdietara nahi zuen. Bigarren enkontru hartan bertan, ezertxo ere galdetu ez bailuen, galderak egiteari ekin zion naturaltasun osoz. Ea neskatoak ahizpa-neba gehiagorik zuen, ea hurbil bizi zen, ea Anek lanordurik galdu behar izan



zuen, ea zein auzotan bizi zen. Lanor-dua amaitzear zuen, eguneko azken gai-xoa zen, eta berak ere Aneren auzora joan beharra zuela esan zien. Berak gus-tura eramango zituela biak etxera, eta umearen sudurra lurrera jausten bazen alboan egon nahi zuela esan zion, lurre-tik hartu eta bere lekuan josteko berriz. Honela, haurrari txantxak eginez, lurrazpiko aparkalekuraino joan zen ama-alabekin.

Etixerako bidean zegoen taberna bate-an kafe bat hartu zuten, eta, gero, etxera eraman zituen ama-alabak. Anek Esteban Mugarrari geroago esan zionagatik kontsultan, ez zuen ezer berezirik sumatu, Mikelek dena naturala bailitzan jokatzuten baitzuen. Zuzen itaundu gabe, galderarik egingo ez bailuen, erantzunak ematera bultzarazten zuen, gonbidape-nik egin gabe gonbidatzen zuen, aintzi-nako laguna izango balitz bezala. Baiez-korik eskatu gabe baietza bereganatzen zuen. Naturala zen dena.

Bi egun geroago, Ane auzoko kiosko-an egunkariak erosten ari zela, topo egin

zuen Mikelekin, eta biharamunerako lotu ziren jatetxe jendetsu batean elkarrekin bazkaltzeko eguneko menua. Naturala dena. Zenbait egun geroago haurrekin ikastolatik zetorrela ikusi zuten elkar ka-lean, eta gozoki-denda bate-raino lagundu zituen Mikelek berak ere, alabei zerbait ero-si nahi zien-eta. Hurrengo astean berriro hartu zuten kafea elkarrekin ospitaleko tabernan, Anek alaba eraman zuenean kontsultara berraz-tertzeko.

Mikelekikoa mediku-gaixo ha-rremana baino beste zerbait zela konturatu zen goiz batean, esnatu eta berataz pentsatzen ari zela ohartu zene-an. Zerbait gertatu zelako kontzientzia laster hartu zuen, izan ere, elkar ikusteari hiru egunez utzi eta beso bat falta baili-tzaion sentitu zuen egunean. Mikel ez zen aukera bat, ez zen erlazio aseptiko bat, hartu eta uztekoa. Hutsune bihurtu zitzaion.

Bizitzeko behar nuen. Arnasa bezainbat. Berarengandik urrun nengoenean ito egi-ten nintzen. Alabek ere ez zuten betetzen haren hutsunea. Mina ematen zidan ausen-tziak, eta mina beraren ondoan egon eta laster bananduko ginela jakiteak; baina el-karrekiniko une apur horiek bakarrik bete ze-zaketzen itomena. Errudun-sentimendua geroagoko sentsazioa izan nuen, arau-ek sortutako sentsazioa, baina ez nigandik aterea zena. Artean, nire nahi bakarra bera ikustea zen. Hura zen desira, beharrian! Beste ezerk ez ninduen asetzen.

Hiru hilabeteko harremanaren ondo-ren Anek maleta hartu eta alde egin zuen etxetik, ohar laburra utziz: «Ezin dut gehiago». Orain sei urte izan zen hura, sei urte luze. Duela bi hilabete es-kas Esteban Mugarraren kontsultan agertu da lehenengoz. Depresioari da-gokion sintomatologia nabaria du, baina berau tratatzeko Estebanek gehiago ja-kin behar du, muinera jo beharra dauka. Eta, oraingoz, Ane bera da bere informa-zio-iturri hoberena.

Etzetik kanpo sei urte eta erdi eman eta gero, egun batean etxean agertu zen. Atea bere giltzaz zabaltu zuen eta eramandako maleta bera utzi zuen sarrerako behegainean. Bertan gelditu zen, zutik, tente, mutu, tristura-aurpe-giaz, eta ia hamahiru urteko neskato lirain batek nor zen galdetu zionean ezin izan zuen ezer esan. Eunatetik ez zuen ama ezagutu, argazkietako emakumeak eta emakume hark ez zutelako ematen emakume bera.